



EBAZPENA, 2008KO URRIAREN 20KOA, HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDEARENA, BIZKAIKO 1:5000 ESKALAKO HIRI-TOPONIMIAREN NORMALIZAZIOA ETA ARABA, BIZKAIA ETA GIPUZKOAREN ARTEKO MAPA MUGAKIDEEN TRATAMENDU BATERATUA KONTRATATZEKO KONTRATUA (K-29/2008) BEHIN BETIKO ESLEITZEKO DENA

GERTAKARIAK

Lehenengoa.- Hizkuntza Politikarako sailburuordearen 2008ko ekainaren 16ko Ebazpenaren bidez, idazpuruan adierazitako kontratazioari buruzko K-29/2008 espedientea onartu zen, esleipen prozedura irekia erabiliz.

Bigarregoa.- Lizitazio hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen 125 zenbakiarekin, 2008ko uztailaren 2an.

Hirugarrena.- Hizkuntza Politikarako sailburuordearen 2008ko irailaren 25eko Ebazpenaren bidez, behin-behinean esleitu zitzaion idazpuruko K-29/2008 espedientea UNIVERSIDAD DE DEUSTO enpresari.

Laugarrena.- 2008ko urriaren 1ean behin-behineko esleipena argitaratu zen EAEko Kontratatzailearen Profilean (www.euskadi.net/kontratazioa), halaxe agintzen du-eta Sektore Publikoaren Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legeak 135.3 artikuluan.

Bosgarrena.- Enpresa esleipendunak 5.770 euroko bermea jarri du Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusian, legeak agintzen duen epean eta moduan, eta era berean Zerga eta Gizarte Segurantzaren betebeharretan egunean izatea frogatu du.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Behin-behineko esleipena kontratatzailearen profilean argitaratu zen egunaren biharamunetik hamabost egun baliodun pasa direnez eta esleipendunak bermea garaiz eta forma egokian aurkeztu duenez, bidezkoa da behin-behineko esleipen hori behin betiko bihurtzea, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen 135.4 artikuluan xedatutakoari jarraiki.

Bigarrena.- Kultura Sailaren egitura organikoa onartu eta kontratazio-alorreko eskumenak finkatzen dituen otsailaren 14ko 25/2006 Dekretuaren 7.2.i) artikulua kontratazio arloko funtzioak esleitzen dizkio Hizkuntza Politikarako sailburuordeari.

Espedienteko dokumentazioa, aipatutako lege-arauak eta horiekin bat datozen gainerako xedapen orokorrak ikusi ondoren, hau

**EBATZI DUT:**

Lehenengoa.- UNIVERSIDAD DE DEUSTO enpresari (IFZ B20449302) esleitzea behin-betiko "Bizkaiko 1:5000 eskalako hiri-toponimiaren normalizazioa eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoaren arteko mapa mugakideen tratamendu bateratua kontratua (K-29/2008 espedientea), enpresak egindako proposamen teknikoaren arabera eta 115.400€, eta 18.464€ BEZen kontzeptuan, esleipen kopuru .

Bigarrena.- Kontratuaren iraupena 10 hilabetekoa izango da kontratua sinatu eta hurrengo egunetik hasita.

Hirugarrena.- Behin betiko ebazpen hau kontratatzailearen profilean argitara dadila agintzea.

Laugarrena.- Formaliza bedi kontratua, dagokion administrazio-agiriaren bitartez 10 eguneko epean Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen 140 artikuluan xedatutakoari jarraiki

Bosgarrena.- Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea eta, bidez batez, ohartaraztea administrazio-bidea agortzen ez duenez, honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkez diezaioketela Kultura sailburuari hilabeteko epean, Ebazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko urriaren 20a

Hizkuntza Politikarako sailburuordea



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

PATXI BAZTARRIKA GALPARSORO

KULTURA SAILA
Departamento de Cultura
Viceconsejería de Política Lingüística